

MUNGIARRA

APIRILA ABRIL 2022 ~ 69. Zkia.

Hobekuntzak Laukariz eta Legarda eskoletan

KULTURA LIBURU AZOKA

'Amatasuna'. Emakume
idazleak euskal
literaturan

EKONOMIA LAN MERKATUA

Pandemiaren
aurreko egoerara
bueltan

M-8

Aurreratutako bidea
eta egin beharreko
tarteak



MUNGIA
UDALA

www.mungia.eus





Kaixo mungiarra:

Bizitza tokau jakun sasoi honetan, ezin ukatu zalantza asko daukaguzala gure etorkizuna zein izango dan pentsatzen dogunean.

Halan da be, zalantza horreen aurrean, mungiarrok beti egin izan dogun moduan, itxaropena, ilusinoa, lana, alkartasuna eta danok batera aurrera egiteko gogoia jarri behar doguz gure egunerokoaren oinarri lez.

Gure aurrekoak holan jardun behar izan eben guk gaur egun daukagun bizi kalidadea eukiteko, beraz eurei esker, atzokotik ikasiz, gure bideak zein izan behar dauen argi daukagu.

Horregaitik, Udaletik hainbat proiektu martxan ipintzen jarraitzen dogu. Hurrengo orrialdeetan horren adibide batzuk daukazuz.

Etorkizuneko Mungia zelakoa gura dogun argi daukagu. Sozialki eta ekonomikoki jasangarria, Ingurumenagaz arduratzen dana, gure euskal nortasunagaz harro

sentitzen dana, belaunaldi guztietako mungiarrek kontutan daukazana, batzuk besteengandik ikasiz. Alkartasuna ez bakarrik gure artean, mundu osoagaz praktikan jartzen dauana. Kanpotik datorrenari harrera ona egiten deusona eta beste mungiar bat bihurtzen laguntzen deusona. Herriari bizitasuna emoten deusien arlo guztietako alkartez beteta.

Bere etorkizuna, guztion partehartze aktiboagaz planifikatzen dauana.

Udalean, zalantzen gainetik, ilusinoz eta itxaropenez beteta gagoz, Mungia eta mungiarrrongan sinisten dogulako.

Etorkizuneko Mungia alkarregaz egingo dogu.

Aurrera Mungia!!

Kaixo mungiarra:

A día de hoy, son innegables las dudas sobre nuestro futuro. Pero debemos mantener la esperanza, la ilusión, el trabajo, la solidaridad y las ganas de avanzar juntas y juntos.

Quienes nos antecederon así lo hicieron; así que, aprendiendo del pasado, tenemos claro el camino.

Por eso, desde el Ayuntamiento seguimos poniendo en marcha diferentes proyectos. En las páginas siguientes tienes algunos ejemplos.

Tenemos claro cómo queremos que sea Mungia: sostenible social y económicamente; responsable con el medio ambiente; con orgullo de nuestra identidad vasca y contando con todas las generaciones. Un municipio solidario, donde se acoge a quien viene de fuera ayudándole a convertirse en otra u otro mungiarra más. Con asociaciones que dan vitalidad al pueblo. Y donde el futuro se planifica con la participación activa de todas y todos.

Aurrera, Mungia!!!

» Mungiarrak udalerriaren etorkizuna diseinetan dabe



La ciudadanía diseña el futuro de Mungia

El Ayuntamiento ha organizado diversas jornadas de participación para el diseño del nuevo PGOU conociendo las necesidades, propuestas y preocupaciones de la ciudadanía.

El Consistorio avanza en las diferentes fases del diseño del nuevo Plan, analizando los aspectos jurídicos, creando un primer borrador y planteando nuevos talleres de participación.

El Ayuntamiento ha puesto a disposición de las personas interesadas en participar en el diseño del nuevo PGOU la web www.mungiaplanorokorra.eus, donde la ciudadanía podrá encontrar el Manual de Participación o las conclusiones recogidas en el último proceso de participación además de muchas otras informaciones.

Mungiako Udalak Hiri Antolamendurako Plan Orokor barria diseinetan jarraituten dau, bizigarriagoa izango dan udalerria eraikiteko helburuagaz, «Etorbizuneko Mungia Alkarregaz!» lelopean. Horretarako, Udalak herritarren eritxia hartu gura dau abiapuntutzat, herritarren beharrak asetzen eta proposamenak ezagutzen saiatzeko. Abenduan, herritarren partaidetzarako tailer bi antolatu ziran, eta, udalerriaren hainbat alderdiri buruzko eritxia emon eben mungiarrek: mugikortasuna, azpiegiturak, ekipamenduak, paisaia, etxebizitza, jarduera ekonomikoa eta hirigintza-garapena. Danon artean Mungia hobea eta bizigarriagoa eraikitea da helburua. Prozesu honetan, herritarren parte-hartzeak funtsezko rola bete behar dau, eta, horregaitik, Udalak, herritarren proposamenak ezagutu gura dauz.

Holan, Mungiako Udalak HAPOa sortu eta onartu aurretik bete beharreko faseetan aurrera egiten jarraituten dau. Besteak beste, antolamendu-planak, plan sektorialak eta lurralde-planak

aztertzen dira, bai eta administrazioek egindako txostenak bere, etorkizuneko plan orokorrean izango daben eragina zehaztuteko eta lehen zirriborroa egiteko. Ondoren, planaren zirriborroko proposamenei buruzko eztabaida-saio irekiak antolatuko dira, eta, dokumentua hasieran onartu ostean, planari eta ingurumen-azterketa estrategikoari buruzko eztabaida-saio barriak egingo dira. Azkenik, dokumentua behin-behinean onartzeko partaidetza-prozesua ixteko ekitaldia egingo da, eta, gero, HAPOa behin betiko onartuko da.

Amaitzeko, Udalak HAPO barriaren diseinuan parte hartu gura daben pertsonen eskura www.mungiaplanorokorra.eus webgunea ipini dau. Bertan, herritarrek Parte-hartze eskuliburua edo azken parte-hartze prozesuan jasotako ondorioak aurkitu ahal izango ditue, baita beste informazio asko bere.

» ZERGEN HOBARIAK ETA SALBUESPENAK 2022 URTERAKO

Mungiako Udalak ezagutzera emon gura ditu Udal-zergetan dagozan hobari eta salbuespen batzuk, hori mungiarrentzat interesgarria da eta. Informazio zehatza Udalaren webgunean dago ikusgai, gardentasunaren atalean.

Zerga-onurak jasoteko, interesdunek eskatu egin beharko dabe

jagokoa salbuespena edo hobaria. Era berean, laburpen honetan kirol eta kultur zerbitzuetan dagozan hobariak eta dirulaguntzak bere aipatzen dira.

Azkenik, azpimarratu behar da, egoera ekonomikoa kontuan hartuta, zergen prezioak ez dirala aldatu 2020. urtetik.

ONDASUN HIGIEZINEN GAINEKO ZERGA	IMPUESTO SOBRE BIENES INMUEBLES
HOBARIAK	BONIFICACIONES
% 50eko hobaria babes publikoko etxebizitzetzi. % 50eko hobaria Eusko Jaurlaritzak duen "Etxebizitza Hutsen Programa"-ren edo beste etxebizitza-programa batzuen arloan lagatzen diren ondasun higiezinak. % 50eko hobaria baldin eta horietan eguzkiaren energia termikoki edo elektrikoki aprobetxatzeko sistemak instalatu badira.	- Bonificación del 50% a las viviendas de protección pública. - Bonificación del 50% a los inmuebles objeto de cesión en programas del Gobierno Vasco en el marco del "Programa de Vivienda Vacía" o de otros planes. - Bonificación del 50 % para los bienes inmuebles en los que se hayan instalado sistemas para el aprovechamiento térmico o eléctrico de la energía proveniente del sol.
HIRI-LURREN BALIOAREN IGOERAREN GAINEKO ZERGA	IMPUESTO SOBRE EL INCREMENTO DEL VALOR DE LOS TERRENOS DE NATURALEZA URBANA (PLUSVALÍA)
HOBARIAK	BONIFICACIONES
% 100era bitarteko hobaria eskualdaketak heriotzagatik egiten direnean eta eskuratzen den ondasuna ohiko etxebizitza denean. % 90eko hobaria eskualdaketak heriotzagatik egiten direnean eta eskualdatu den higiezin hori hildako pertsona bere lan-jarduerarako, enpresa jarduerarako edo merkataritzarako erabiltzen zuena bada, eta hartzaileak jardura hori garatzen jarraituko badu.	- Bonificación de hasta el 100% en las transmisiones realizadas por causa de muerte y el bien adquirido sea la vivienda habitual. - Bonificación del 90% en las transmisiones realizadas por causa de muerte y el inmueble transmitido sea el local en el que la persona fallecida ejercía actividades profesionales, empresariales o comerciales y siempre que la persona adquirente continúe en el ejercicio de la actividad.
ERAIKUNTZA, INSTALAZIO ETA OBREI DAGOKIEN ZERGA	IMPUESTO SOBRE CONSTRUCCIONES, INSTALACIONES Y OBRAS.
HOBARIAK	BONIFICACIONES
% 50eko hobaria fatxadak garbitu eta margotzeko. % 60ko hobaria 1945 baino lehenago eraikitako baserrietan, eraikinaren kanpoko inguratzaleari (estalkia barne) eragiten dioten obretan. % 50eko hobaria Babes Ofizialeko Etxebizitzetzi dagozkien obretan, eta %30ekoa Udak Etxebizitza Tasatuetan. % 60ko hobaria lehendik egon diren eraikinetako oztopo arkitektonikoak kentzen dituzten obrak egiten direnean, igogailuak instalatzea barne. % 60ko hobaria % 33tik gorako mugitzeko gaitasun murriztua duten pertsonen bizigarritasuna eta irisgarritasuna hobetzen laguntzen duten eraikinetako elementu pribatiboetan egindako lanetarako. % 25eko hobaria energia kontsumoaren murrizketa ekarriko duten isolamendu obretarako.	- Bonificación del 50% para las obras de limpieza y la pintura de fachadas. - Bonificación del 60% para las obras que afecten a la envolvente externa del edificio (incluida la cubierta), en caseríos construidos con anterioridad al año 1.945. - Bonificación del 50% en obras referentes a las Viviendas de Protección Oficial y del 30% en el supuesto de Vivienda Tasada Municipal. - Bonificación del 60% por la eliminación de barreras arquitectónicas de edificios o construcciones preexistentes, incluida la instalación de ascensor. - Bonificación del 60% en obras en elementos privativos de un inmueble que favorezcan las condiciones de acceso y habitabilidad de personas con capacidad de movimiento reducida superior al 33%. - Bonificación del 25% para las obras de aislamiento de fachadas que reduzcan el consumo de energía.

TRAKZIO MEKANIKOKO IBILGAILUEN GAINEKO ZERGA	IMPUESTO SOBRE VEHICULOS DE TRACCION MECANICA
SALBUESPENAK	EXENCIONES
- Dibertsitate funtzionala duten eta % 33ko desgaitasun-maila edo handiagoa aitortuta duten pertsonen izenean dauden ibilgailuak - Nekazaritzako Ikuskapen Txartela duten traktoreak, atoiak, erdiatoiak eta makinak.	- Vehículos a nombre de personas con diversidad funcional y que tengan reconocido un grado de discapacidad igual o superior al 33%. - Los tractores, remolques, semirremolques y maquinaria provistos de Cartilla de Inspección Agrícola.
HOBARIAK	BONIFICACIONES
% 100eko hobaria ibilgailu historikoek edo gutxienez ere 30 urtetik gora dituztenentzat. % 75eko hobaria propulsioko ibilgailu hibridoentzat (energia elektrikoa eta erregaia konbinatzen dituztenak). % 75eko hobaria erregai moduan gasa, gas naturala, petrolioaren gas likidotuak edo bioetanola erabiltzen duten ibilgailuentzat. % 30era bitarteko hobaria ibilgailuaren titularra familia ugari-ko kidea bada.	- Bonificación del 100%, para vehículos históricos o aquellos que tengan una antigüedad mínima de 30 años. - Bonificación del 75% para vehículos eléctricos o vehículos de motor híbrido de propulsión combinando la energía eléctrica y carburante. - Bonificación del 75% para vehículos que utilicen gas como combustible, bien gas natural, gases licuados del petróleo o bioetanol. - Bonificación de hasta el 30% para el vehículo cuya titularidad recaiga sobre una persona componente de una familia que tenga la consideración de familia numerosa.

KIROL ZERBITZUAK	SERVICIOS DEPORTIVOS
ONURAK	BENEFICIOS
Familia abonuen prezioetan:	En los precios de los abonos familiares:
0 eta 24 urte bitarteko seme/alaba bakoitzeko 4 urtetik 16ra bitartekoentzat eta jubilatuentzako sarreren prezioan	- Por cada hija o hijo de 0 a 24 años - En el precio de la entrada para menores de entre 4 y 16 años y personas jubiladas
Ikastaroen prezioan:	En los precios de cursillos:
- Abonu berarekin ikastaro bat baino gehiago eginez gero, bigarren ikastarorako % 10eko beherapena eta, era berean, % 20ko beherapena hirugarrenarako eta hortik gorakoetarako. 60 urtetik gorakoan, 50 urtetik gorako andreen edota dibertsitate funtzionala duten pertsonen artean kirola eta osasuna sustatzeko antolatutako ikastaroetan.	- Por la realización de más de un curso con el mismo abono, un descuento del 10% por el segundo curso y un 20% por el tercero y restantes. - En cursillos que fomentan el deporte-salud y destinados a colectivos de personas mayores de 60 años, mujeres mayores de 50 años y personas con diversidad funcional.

KULTUR ZERBITZUAK	SERVICIOS CULTURALES
ONURAK	BENEFICIOS
Familia bereko umeek izena ematen badute hamabostaldi berean udapasetan:	Por la inscripción dentro de la misma quincena en cualquiera de las colonias de verano:
2. alabak edo semeak izena emateagatik: % 10 3. alabak edo semeak izena emateagatik: % 20	2ª hija o hijo, un descuento del 10% 3ª hija o hijo y restantes, un descuento del 20%
DIRULAGUNTZAK	SUBVENCIONES
Euskera ikasteko dirulaguntzak	Subvenciones para el aprendizaje de euskera

BONIFICACIONES Y EXENCIONES DE LOS IMPUESTOS PARA EL AÑO 2022

El Ayuntamiento quiere dar a conocer algunas bonificaciones y exenciones que existen en los diferentes impuestos municipales y que pueden ser de interés para las y los mungiarras. La información detallada está disponible en el apartado de transparencia de la web municipal.

Para el otorgamiento de los beneficios fiscales, las personas interesadas deberán solicitar la exención o bonificación correspondiente.

Asimismo, en el siguiente resumen también se hace mención de los

beneficios y subvenciones que existen en los servicios deportivos y culturales.

Por último, hay que indicar que teniendo en cuenta la situación económica, los precios de los impuestos no han variado desde el 2020.

» Lan-merkatua gaur egungo egoera ekonomikoaren aurrean

2021ean, Mungian 813 langabe erregistratu ziran enplegu-zerbitzu publikoetan, eta urtetik urterako langabeziak behera egin eban: 90 pertsona gixiago egon ziran erregistratuta, hau da, langabeen kopurua % 10 jaitsi zan (903 langabe 2020ko abenduan). Mungian bizi dira eskualdeko langabeen % 68,96 (813 pertsona, Mungialdeko 1.179 langabeen aldean).

Mungiaren langabezia-indizea 2021eko laugarren hiruhilekoan % 9,31koa izan zan (8,4 gizonetako eta 10,2 emakumeetako), 2020an % 10,07koa izan zan eta 2019an % 9,24koa; beraz, Covid-19aren pandemiaren aurreko langabezia-mailetan gagoz.

Mungiak ekitaldiaren amaieran Bizkaian erregistratutakoa baino langabezia-indize hobea izan eban (% 9,31), %

11,65koa, eta Euskadikoa % 10,67koa. Langabezia-mailak egonkortzeari eta murrizteari begira, joera hori mantendu egin da 2022ko lehenengo hile bietan, eta zezeilean 775 pertsonako langabezia-maila erregistratu da.

Lan-kontratazioen urte-arteko aldaketa 2021eko abenduan 2020ko mailen ganetik egon da, baina pandemia hasi aurreko eta 2018ko mailen sano azpitik.


Halanda bere, enpleguaren eta jarduera ekonomikoari eustearen arloan jasaten dan prezio-igoereak (KPIaren urte arteko tasa % 7,6koa izan zan zezeilean, mailarik altuena 35 urtean) eta Errusiak Ukraina inbaditu izanak arlo ekonomikoan eragindako ziurgabetasunak zelan eragiten dauen ikusteko itxaron egin behar da.

El mercado de trabajo ante el contexto económico actual

Mungia cerró 2021, con 813 personas registradas en los servicios de empleo, habiéndose producido un descenso del desempleo registrado interanual de 90 personas, lo que supone una reducción del 10% en el número de personas desempleadas registradas (903 personas desempleadas en diciembre de 2020). El 68,96% de las personas desempleadas de la comarca vive en Mungia (813 respecto a las 1.179 personas desempleadas de Mungialdea).

La variación interanual de la contratación laboral ha estado en diciembre de 2021 por encima de los niveles de 2020, pero por debajo de los del 2019, justo antes del inicio de la pandemia, y de 2018.

No obstante, hay que esperar para ver cómo afecta en materia de empleo y sostenimiento de la actividad económica la escalada de precios que se viene sufriendo (con una tasa interanual del IPC en el mes de febrero del 7,6%, el nivel más alto en 35 años -desde 1986) y la incertidumbre en materia económica ocasionada por la invasión rusa de Ucrania.



» Mungialdeko Behargintza zenbakietan – 2021eko itxiera

- 1.030 pertsona enplegurako orientatuta.
- 282 pertsona, 16 ikastaro/prestakuntza-ekintzatan prestatuak.
- Behargintzak kudeatutako 208 lan-eskaintza eta 132 lan-txertaketa.
- 38 enpresa-sustatzailerik abian jarritako 36 negozio; 46 lanpostu sortu dira.

Mungialdeko Behargintza en cifras – cierre de 2021

- 1.030 orientadas laboralmente.
- 282 personas formadas en 16 cursos/acciones formativas.
- 208 ofertas de empleo gestionadas desde Behargintza con 132 inserciones laborales.
- 38 personas promotoras poniendo en marcha de 36 negocios, creando 46 empleos.

» Formazioa eta enpresak sortzeko laguntzak, enplegarritasuna hobetuteko

Mungiaiko Udalak eta Mungialdeko Behargintzak beharrean jarraitzen dabe, tokiko ekonomia eta lana sustatzeko. Formazioa eta berbideratzea izango dira, datozan hilabeteetan, enplegarritasuna hobetzeko apustuak, bai Hazilan ekimenaren edizino barrian, bai formakuntzan, eta bai enpresak sortzen laguntzeko tresnetan bere.

» Hazilan 2022: izena emateko epea zabalik

MUNGIALDEKO BEHARGINTZAK HAZILAN 2022an (IX. edizioa) izena emateko epea ireki dau.

HAZILAN lana topaten lagunduteko tresna da, lehenengo eta behin gaitasun pertsonalak eta profesionalak hobetuteko eta garatuteko prestakuntza-prozesu bat egiten da.

Ostean enpresako praktikak egitean, benetako esperientzia lortzeko errea dago pertsona bakotxaren lanbide-profilaren arabera, enpresetan egingo diran 200 orduko egonaldien bidez.

HAZILANen parte hartzeko baldintza honeek bete behar dira:

- » 20 eta 44 urte bitartekoa izatea.
- » Langabezian egotea edo enplegua hobetzeko egoeran (lanaldiaren % 50 baino gutxiago).
- » Goi-mailako prestakuntza (LHII- GMHZ) eta/edo unibertsidade-titulua izatea.

HAZILAN-2022 **apirilaren 25an** hasiko da.

» Formazioa MB 2022

Mungialdeko Behargintzak, hainbat arlotako prestakuntza eskainiko dau langabezian edo enplegua hobetzeko egoeran dagozan pertsonentzat.

- » Eraldaketa digitalari aurre egiteko formazioa eskainiko da, maiatzaren 2tik bagilaren 1era; 69 ordukoa; eta tresna digitalen erabilera landuko da.



MUNGIALDEKO BEHARGINTZA abre el plazo para inscribirse en IX HAZILAN 2022, que tiene previsto su inicio en ABRIL, y está dirigido a personas de entre 20 y 44 años, con formación superior y/o titulación universitaria, que estén en búsqueda de empleo o quieran mejorar su empleo. El programa consta de una primera fase, AKTIBATU, para trabajar las competencias personales y profesionales, así como la marca personal y digital, y una segunda fase, KOKATU, de prácticas en empresas.

i

Izena-emotea / Inscripción

94 615 62 44

orienta@mungialdeko-behargintza.com

» Enpresak sortzeko laguntzak

Negoio bat sortu gura daben pertsonen Behargintzako laguntza daukie. Horretarako, enpresa-idea barrien ordu biko tailerra antolatuko da hilero (apirilean, 20an izango da).

Ganera, maiatzaren 27tik bagilaren 3ra arte, Ekintzaileentzako enpresa-kudeaketari buruzko ikastaroa bere egingo da. Ikastaro hau da, hain zuzen bere, Bizkaiko Foru Aldundiaren negozioak abian jartzeko laguntzak jasotzeko baldintzetako bat.

Ikastaro horreen ganera, negozioak abian jartzeko laguntza publikoak eskuratzeko baldintzak beteten laguntzea (Bizkaiko Foru Aldundia eta Lanbide-Euskal Enplegu Zerbitzua) bere eskaintzen dau Behargintzak.



Mungialdeko Behargintza ofrece apoyo a las personas que quieran poner en marcha su propio negocio, con talleres de nuevas ideas empresariales todos los meses (en abril, el día 20), curso de gestión empresarial destinada a personas emprendedoras (requisito para acceder a las ayudas de la Diputación Foral de Bizkaia) que ha celebrado una edición en marzo y otra del 27 de mayo al 3 de junio. Además de apoyo en la gestión de las ayudas económicas para la puesta en marcha del negocio.

En 2022 están previstas varias formaciones para personas en búsqueda o mejora de empleo. Se trabajarán ámbitos como la transformación digital, la maquinaria de movimiento de carga y la limpieza en espacios abiertos e instalaciones industriales.

» Mungiako produktu aberatsak, Gustokon

Martiaren 4tik 6ra bitartean, Mungiako Udalak Gustoko azokan parte hartu eban BECen, hain zuzen bere, kalidadearen, elaborazioaren eta dastatzearen oinarrien ganean eraikitako azokan. Aukera ezin hobe da bertoko eta parajeko produktuak erakusteko.

Aurten bere, Udalak tokiko produktu aberatsak indartzearen aldeko apustua egin dau, besteak beste, indabak, txorizoa, barazki-buzkantzak, 'Txakinarto' arto-uruna eta ore amagaz egindako ogia aurkeztuta.

Ganera, Mungiako standean txorizoa eta buzkantzak dastateko eta Mungiako indaba tolosarra jateko aukera bere egon zan eta produktu onaren maitaleek ez eutsien aukera horri pasetan itxi.

Horren guztiaren ordezkari ederrak izan ziran Morga Harategia, Berteiz eta Mendiondo ogitegia eta Luis Azillona.



Mungia en "Gustoko"

Del 4 al 6 de marzo, el Ayuntamiento de Mungia participó en la feria "Gustoko" del BEC, una feria construida sobre los pilares de la calidad, y el aprecio por la elaboración y la degustación; una ocasión perfecta para dar a conocer los productos de proximidad.

Una vez más, el Ayuntamiento apostó por promocionar los productos locales como son las alubias, el chorizo, la morcilla de verdura, la harina de maíz 'txakinarto' y el pan de masa madre.

Además, en el stand de Mungia se pudo degustar chorizo, morcilla y la alubia tolosana de Mungia

La Carnicería Morga, Berteiz y Mendiondo ogitegia y Luis Azillona fueron fieles representantes de estas delicias.

» Ostalariak, Inauterietan

"Elkar zaintzearen" filosofiari eutsita, Mungiako Merkataria eta Ostalarien Elkartearen laguntzagaz, "Mungiako Ostalariak Inauterietan" VI. Lehiaketa antolatu genduan, inauterietako ohiko giroari keinu txiki bat eginda.

Guztira, zortzi tabernak hartu eben parte: ATERPE, CAFETERIA IZARRA, EZ ESAN INORI, KORRONTZI, MUME, RAMONTXU, TXOMIN eta URGOITI.

Aurten, lau sari banatu dira:

1. saria: 400€ IZARRA TABERNA
2. saria: 300€ ATERPE TABERNA
3. saria: 200€ URGOITI TABERNA
4. saria: 100€ EZ ESAN INORI TABERNA

Eguraldi ona lagun dala, fanfarria batek doinuek alaitu zituan taberna parte hartzaileak, inauterietako giro polita sortuta.



En colaboración con la Asociación de Comerciantes y Hosteleros de Mungia, hemos celebrado el VI Concurso de Carnavales Hosteleros de Mungia. Un pequeño guiño para ambientar nuestros carnavales.

Participaron ocho bares: ATERPE, CAFETERIA IZARRA, EZ ESAN INORI, KORRONTZI, MUME, RAMONTXU, TXOMIN y URGOITI.

Este año se han entregado cuatro premios:

- 1er premio: 400 € TABERNA IZARRA.
- 2º premio: 300 € ATERPE TABERNA.
- 3er premio: 200 € URGOITI TABERNA.
- 4º premio: 100 € EZ ESAN INORI TABERNA.

Además, una fanfarria amenizó los bares participantes.

» Mungiarrok 46 palet batu ditugu Ukrainarako



Mungiarrok behar-beharrezkoak diran jeneroz betetako 46 palet emon dauz Ukrainara bidaltzeko, herrialde horrek gaur egun bizi dauen gerra egoera dala eta. Martiaren 10ean, 130 bolondres ibili ziran beharrean egun osoan Andra Mari Gunean herritarrok emondakoak batzen: 18 janari-palet (patea, arroza, leka, umeentzako janaria, esne-hautsa, zerealak...), kanpatzeko materialdun 10 palet (kanpin-dendak, linternak, lo-zakuak, esterillak, termo botilak...), 3 palet manta, arropa termikoen 7 palet, berotzeko osagarrien palet 1, jostailuen beste bat, ume-pardelak, zapi busti, botikinak eta konpresakaz 6 palet.

Mungia beti izan da herri solidarioa eta, barriro bere, erakutsi egin dau. Laguntza eskatu eta segiduan, mungiarrok beti erantzuten dogu, eta horrek herri moduan itzel harrotzen gaitu. Benetan eskertzekoa da holango krisi baten aurrean emon dogun adibidea.

Bestalde, Mungiako Udalak egindako gestio batzuei esker, Belako Elkartegian pabilioi bat itxi jako Ukraina Euskadi Alkarteari, jasoten dan materialaren biltegi moduan erabilteko.

Mungia recolecta 46 palés para Ucrania

El pueblo de Mungia ha donado 46 palés llenos de bienes de primera necesidad a Ucrania, dada la actual situación de guerra del país. El pasado 10 de marzo, 130 personas voluntarias recogieron las donaciones de la ciudadanía en Andra Mari Gunea: comida (pasta, arroz, legumbre, comida infantil, leche en polvo, cereales...), material de acampada (tiendas de campaña, linternas, sacos de dormir esterillas, termos...), mantas, ropa térmica, complementos de abrigo, juguetes, pañales, toallitas húmedas, botiquines y compresas.

Mungia es un pueblo muy solidario y, una vez más, lo ha demostrado. En cuanto se hace un llamamiento de ayuda, las y los mungiarros siempre responden y es algo que nos enorgullece como pueblo.

Por otro lado, gracias a unas gestiones realizadas por el Ayuntamiento, se ha cedido un pabellón en Belako Elkartegia a la Asociación Ucrania Euskadi para utilizarlo como almacén del material humanitario que se está recogiendo.

» Aholku Sarea, atzeritartasunaren alorreko Euskal Zerbitzu Juridikoa

Eusko Jaurlaritzako Enplegu eta Gizarte Politiketarako Sailak *Aholku Sarea* izeneko zerbitzua emoten dau, atzeritartasunari buruzko aholkularitza juridikoa eskaintzeko.

Zerbitzu hau egoera ahulean dagozan atzeritarrei, hainbat administratibotako profesionalei eta hirugarren sektoreko profesionalei zuzenduta dago.

Helburua atzeritarren erregularizazio-prozesua erraztea eta etorkizunean irregulartasun-egoerak saihesteko prebentzio-lana egitea da.

Eusko Jaurlaritzak zerbitzu hori Euskadiko gune barrietara zabaltzea erabagi dau, eta Mungiara ekarteko aukerea emon dau. Mungialdeko herritarrentzat oso aukera

egokia dala ikusi eta zerbitzua zezeilean jarri da martxan gure udalerrian. Gizarte Zerbitzuen Mungialde Mankomunitatearen lokalean emoten da. Langileak Eusko Jaurlaritzak jartzen dauz eta hitzorduek Mankomunitatean kudeatzen dira, 94.615.55.51 telefonoan.

El Departamento de Empleo y Políticas Sociales del Gobierno Vasco presta el Servicio *Aholku Sarea* para el asesoramiento jurídico en materia de extranjería.

Este servicio está dirigido a personas extranjeras en situación de vulnerabilidad, profesionales de distintas administraciones y del tercer sector. El objetivo es facilitar el proceso de regularización de las personas extranjeras y hacer un trabajo preventivo para evitar futuras situaciones de irregularidad.

El Gobierno Vasco ha decidido extender este Servicio a nuevos espacios y ha dado la oportunidad de traerlo a Mungia.

El servicio se ha puesto en marcha en febrero en nuestro municipio, en el local de la Mancomunidad Mungialde de Servicios Sociales. El personal lo pone el Gobierno Vasco y las citas se gestionan en la Mancomunidad, en el teléfono: 94 615 55 51.

» Familia eta Komunitateko Bitartekaritza Zerbitzua

Servicio de Mediación Familiar y Comunitaria

El Ayuntamiento cuenta desde 2008 con un Servicio de mediación familiar y comunitaria, para intervenir de forma profesional en la resolución de conflictos que surgen entre personas (familias, vecinas y vecinos, centros escolares, asociaciones, etc).

Para pedir una cita en el servicio se puede llamar al teléfono: 94 655 87 14.

2008 urtetik hona Udalak familia- eta komunitate-bitartekaritzako zerbitzua esakintzen dau; zerbitzu horren zeregina herritarren artean sortzen diran gatazkak konpontzea eta modu profesionalean esku hartzea da.

Lan hori burutzeko bitartekari-taldea dago, era honetako gaietan eskarmentu handikoa; gatazkak konpontzeko metodoa erabiltza, hirugarren pertsona inpartzial batek hartzen dau parte adoste prozesu horretan. Horretarako, lehenengo eta behin, inplikaturako alderdiek prozesuan parte hartzea onartu behar dabe. Azken helburua akordio egoki bat lortzea da.

Doako zerbitzu hau Gizarte Zerbitzuen Mungialde Mankomunitatean eskaintzen da eguenetan, 17:00etatik 20:00etara.



Edozein motatako gaiak lantzeko eria dago bitartekaritza hau erabiltza:

- » Desadostasunak, orokorrean.
- » Jatorrizko familien testuinguru-desbaidintasunagaitik sortutako gatazkak (erlijioa, etnia, gizarte-maila, hezkuntza).
- » Familia-estresoreak: enplegua galtzea, etxeko lanak berrantolatzea eta umeak zaintzea.
- » Arazo ekonomikoak (pentsinoak, testamentuak, familia-negozioak, etab.) dirala medio, gurasoen eta anai-arreben artean sortzen diran arazoak.
- » Bitartekaritza egin aurretik bananduta edota dibortziatuta dagozan bikoteak, seme-alabakaz zerikusia daukien gaitan ados jarri behar diranak.

- » Ustebako gertaerak (senide baten heriotza, gaixotasun larria)
- » Bizilagunen arazoak: zaratak, zuhaitz edo lursailen arazoak, obra komunak, eskaileraren garbi-ikuzia, etxeko animaliak, kuota-arazoak, ura edo itoginak iragaztea...
- » Merkataritza eta kontsumitzailea.
- » Eskolako arazoak.

Kanpoan geratzen dira familia-arazo larriak, kasurako, familia-indarkeria, abusuak, tratatu txarrak, patologia psikikoak, alkoholismoa, droga-mendekotasuna, eta abar.

Zerbitzuan hitzordua eskatzeko 94.655.87.14 telefonora deitu behar da.

» Gizarte Zerbitzuen Mungialde Mankomunitatearen lokal barria



Gamiz bidea kaleko 1ean dagoan lokala hartu da errentan, instalazioak handitu eta zerbitzu hobea emoteko, anbulatorio zaharreko egokitze-lanak egiten diran bitartean.

Lokal barrian Adikzioen Prebentzino Zerbitzua, Bardintasunerako Zerbitzua eta Esku-hartze Sozioedukatiboko Taldea egongo dira.

Cesión de un piso para casos de urgencia social

El Ayuntamiento ha firmado un convenio de cesión con la Mancomunidad Mungialde de Servicios Sociales con el fin de cederle un piso, y así poder prestar un servicio de alojamiento a personas o unidades de convivencia que requieran una estancia de corta duración para hacer frente a una falta de alojamiento derivada de una situación de urgencia o emergencia social.

» Mungialdeko Adikzinoen VI. Planaren aurkezpena



Gizarte Zerbitzuen Mungialdeko Mankomunitateak Adikzioen VI. Plana (2022-2026) prestatu dau. Bertan, datozen bost urteetan adikzinoen prebentzioaren arloan garatu beharreko ekintzak aurreikusten dira.

Plan honen helburua adikzinoen gaiari erantzuna emotea da, eta lantzea bai drogen kontsumogaz zerikusia daukienak, bai substantzien kontsumorik ez daukien bestelako erabilera problematikoak bere (sare sozialak, online jokoa, kirol-apustuak, teknologia barrien erabilera desegokia), prebentzioaren beharra indartuta eta hainbat ekintzaren bidez. Ekintza honen hartzaile nagusiak umeak, gazteak,

ikasleak, familiak eta herritarrek izango dira. Aurreko planek modura, plan barri honek bere prebentzioaren eta osasunaren sustapenaren aldeko apostua egingo dau.


Seigarren plan hori Adikzioen Prebentzino Zerbitzuak garatu dau, Ortzadarren laguntza teknikoagaz.

Plan hau egiteko, aurreko planaren ebaluazinoa egin da, bai eta errealitatearen azterketa eta diagnostikoa bere, hainbat teknikaren bidez: gazteentzako galdetegiak, hainbat gizarte-eragileri egindako elkarrizketak, herritarrei whatsapp bidez egindako inkestak, etab.

Tartean, eskualdeko ikastetxeetako Bigarren Hezkuntzako 1. mailatik Batxilergoko 2. mailara bitarteko ikasle guztiek, Heziketa Zikloetako eta Oinarrizko Lanbide Heziketako ikasle guztiek (442 nerabe eta gazte guztira) betetako galdetegia egin zan. Horren ganera, 23 alkarrizketa egin jakezan agente desbardinei.

Plan barria zezeilaren 23an aurkeztu zan Torrebillela Kultur Etxean; eta bertan azaldu ziran egindako diagnostikoaren ondorio nagusiak.

Ya tenemos un nuevo Plan de Prevención de Adicciones



La Mancomunidad Mungialde de Servicios Sociales, ha elaborado el VI Plan de Adicciones 2022-2026, documento donde se recogen las acciones a desarrollar en el ámbito de la prevención de las adicciones para los próximos cinco años.

El objetivo es dar respuesta a las adicciones, tanto las relacionadas con el consumo de sustancias, como otro tipo de usos problemáticos que no conllevan consumo de sustancias (juego online, apuestas deportivas, uso inadecuado de las nuevas tecnologías), a través de diversas acciones. Los colectivos destinatarios prioritarios son la infancia, la juventud, el alumnado, las familias y la ciudadanía.

Este sexto plan, ha sido desarrollado por el Servicio de Prevención de Adicciones con la asistencia técnica de Ortzadar.

Para la elaboración de dicho Plan se ha realizado una evaluación del anterior, así como un análisis y diagnóstico de la realidad mediante diversas técnicas: cuestionarios a la juventud, entrevistas a diversos agentes sociales, encuestas a la ciudadanía vía WhatsApp, etc.

La presentación del nuevo Plan, en la que además se explicaron las conclusiones del diagnóstico realizado, fue el 23 de febrero en Torrebillela Kultur Etxea.

» 8-M: bardintasunean aurreratutako bidea, eta egin beharreko tarte luzea

Martiaren 8an, Emakumeen Nazioarteko Eguna dala eta, bardintasunaren bidean aurreratua ikusarazoteko eta bardintasunezko gizarte baten alde borrokatu ebenak ez ahaztuteko hainbat ekimen antolatu dira Mungian. Bide luzea egiteko dagoela jakinda bere, aurten honako jarduerok egin dira.

Cada 8 de marzo, con motivo del Día Internacional de las Mujeres, organizamos actividades para visibilizar el camino avanzado en la igualdad y no olvidarnos de las que lucharon por una sociedad igualitaria. Conscientes de que queda un largo trecho por recorrer, este año hemos organizado varias actividades: la convocatoria de una provisión de un estudio de investigación para Releer la Historia de las Mujeres de Mungia y hacer visible el papel de aquellas mungiarras que aportaron su trabajo, su pensamiento o su obra a este municipio; el tradicional homenaje a las baserritarras, que cumple 20 años, al igual que el taller de teatro de Diz-Diz, a las que

aprovechamos para felicitar desde aquí, y que este año, con humor y buen hacer nos han ofrecido la obra "Emakumeak-Mujeres III", el espectáculo clown "el humor sí entiende de sexos", para reflexionar sobre los micromachismos, la violencia contra las mujeres y la lucha por la consecución de derechos igualitarios, y la concentración del 8-M. Además, todos los jueves del mes hemos tenido la oportunidad de visionar películas en Olalde, dentro del ciclo "Cine y Mujer". Por su parte, Gaztegunea ha organizado una programación cargada de actividades dirigidas a la juventud de Mungia para reivindicar el 8 de marzo.

» Mungiako Emakumeen Historia berrirakurtzeko ikerketa azterlana



Mungiako Udalak ikerketa azterlan bat egin dau Mungiako Andrazkoen Historia berrirakurtzeko, eta agirian itxi dau euren lana, pentsamendua edo obra

gure udalerrira ekarri eben mungiarren pisua. Berton eta gure mugetatik kanpo garapena, aberastasuna edo ongizatea lortzen lagundu eben Mungiako alabena bere gogoan izan da. Mende osoko historia kontatu da andrak kontutan hartu barik, ikusezin bihurtuta, gizonen historia Gizateriaren Historia izan da eta.

Oinarriak Udalaren webgunean eta iragarki-taulan dagoz eskuragarri. Oraingo honetan, Mungiako plazako bendejerak dira ikeretzeko gaia.

» Martxoak 8

Emakumeen Nazioarteko Eguna dala-eta aho batez onartutako Adierazpen Instituzionala argitaratu zan. Bertan, andrazkoei historikoki kendu jakezan eskubideak lortzearen alde egindako borroken esanahia gogoratzen eta aldarrikatzen da. Emakumeen alkarte eta mugimendu feminista barik ez da posible borroka honetan aurrera egitea. Pertsona baktxaren, kolektiboen eta erakundeen alkarlana, baktxak bere tokietan.

Eta lan kolektibo horren ondorioz, Mungialdeko emakume-elkarteen, mugimendu feministaren eta Mungiako Udalaren deialdien ondorioz, konzentrazino jendetsua egin zan M ikurraren aurrean. Ez zan falta izan aldarrikapena, aurretik izandako emakumeen gogorapena eta jai-giroa, emonaldi eta kantakaz.



» “Emakumeak-Mujeres III”

Olalde Aretoko agertokia umorez eta pertsonaz bete zan Diz-Dizen antzerki tailerraren lana ikusteko. Normalean martiaren 8an harrituten gaitue euren lanagaz; aurten bere lortu dabe. Emakumeak be gizarte honetan protagonistak garala gogorazoteko tarte polita, gizarte honetan bere protagonistak gara eta. Lerro honeek Mungiako eszenatokian 20 urte bete dituan tailerra zoriontzeko aprobetxatzen doguz. Zorionak bihotzez, emondako guztiagaitik!



» M-8a ospatzeko bazkaria



Aurten bazkariari ekin jako atzera M8a ospatzeko. Dana dala, murrizketa batzukaz, Mungiako Emakumeen Elkarteak antolatutako eta udalak diruz lagundutako menu bat izan zan.

Bazkarira ehun emakume baino gehiago joan ziran, alkatea eta udalbatzako kide batzuk, Enpleguako, Gizarteratzeko eta Berdintasuneko foru diputatua, Teresa la Espada eta Berdintasuneko zuzendari nagusia, Patricia Campelo.

» Baserritarrei omenaldia

20 urte segiduan bete doguz gure baserritarrei omenaldi sentidua egiten euren beharragaitik. Horreek dira gure sustraiak, gure balio eta izateko modu askoren adibide. Euren lan isilagaz eta gure lurraldeko frutuakaz, barikueta palazara joaten dira. Danentzat gure esker ona Mungiako herriaren izenean.



» “Umoreak sexuei buruz, bai, ulertzen dau”

Zapatu arratsalde-gaua. Clown artista bat Mungiako plazan egon zan eta jendearengana parajetuten zan, umorearen bidez gogoeta egin daigun emakumeek eta gizonek beteten doguzan rolei buruz eta gure eguneroko zereginei buruz.

Arratsalde alaia mikromatxismoei, andrazkoen aurkako indarkeriari eta bardintasunezko eskubideak lortzeko borrokari buruz hausnartzeko.



» Udalak Laukarizko eskoletako jolastokia estali eta Legarda Ikastetxeko jolastokia itxi egiten ditu

El Ayuntamiento de Mungia cubre el patio de las escuelas de Laukariz y completa el cerramiento del patio de Legarda Ikastetxea.

En total, Consistorio ha realizado inversiones por valor de 684.945,29 euros para la ejecución de estas intervenciones que terminarán el mes de abril.

Ambas acciones optimizan el uso de los espacios cubiertos los días de climatología adversa.



Mungiak udalerriko instalazioak hobetzeko lanak egiten jarraituten dau. Batetik, Laukarizko eskolan estalkia jarri dau, 280.543,85 euroko aurrekontua erabiltuta. Metalezko hiru estalki jarri dauz, kolore urdineko 3DLite motako polikarbonato zelularreko plaken bidez amaituta. Lehenengo estalkiak, U formako 341,43 metro karratuko azalerakoak, erdiko eraikina inguratzen du, bigarrenak 90 metro karratuko azalerakoak, jolas-eremua estaltzen dau, eta, azkenik, hirugarren estalkiak, 30 metro karratukoak, lehenengo solairutik erantsitako eraikinera sartzeko eremua estaltzen dau.

Beste alde batetik, Udalak Legarda Ikastetxeko patioaren itxiturea egin dau, eta lehen 1.145 metro karratuko gune estalia zana, oin 1.207 metro karratukora etorri da; eskolaz kanpoko, kiroleko eta era guztietako ekintzak egiteko; baita udal-ekitaldiak ospatzeko bere. Esku-hartze honetan jolastokiaren fatxadaren 106 metro karratuko eranskina jarri da. Bertan, barrukalderako sarrera barriak dagoz, 3,50 metroko hiru ate lerragarri eta larrialdietarako beste ate bi alde banatan, islatzeen aurkako tratamendua eginda eta argiztapen naturaleko sarrera bermatuta.

Xafla horrek bigarren mailako egitura metalikoa dauka, hormigoi armatuzko hormatxuan bermatuta, eta itxitura perimetralak bertan finkatuko dira. Azkenik, zorrotan eta kutxetak aldatu eta beharizan barrietara egokituko dira. Esku-hartze honek, guztira, 404.401,44 euroko aurrekontua izan dabe.

Apirilean erabilgarri egongo dira, eta, Ikastetxe bietako ikasle eta irakasleek gune bi eukiko dabez eskola-orduetan; hortik kanpo, ganerako mungiarrei zabalduko jakez.

» Dantza eta antzerkirako gela barriak gehitu dira Olalde Aretoan

Olalde eraikinaren mendebaldean dagozan aretoak gela barri bi sortzeko egokitu dira, 74 metro karratukoa bakoitza, dantza eta antzerkirako. Esku-hartzeak 216.000 euroko aurrekontua izan da, eta gela horiek beharrezko instalazio guztiak hornidu dauz.

Holan ba, gela barri biak jaso egin ahal dan tabike mugikor batez zatituta dagoz, holan 148 metro karratuko gela bakar bat sortzeko erea dago. Areto bietan balio anitzeko oholtzak egindako zoladura bat jarri da. Zorua dantza-konpainietan, auditoriumetan eta antzokietan jarri ohi dan motakoa da, era horretako jardueretarako.

Fatxadaren metalezko eskailara bi ipini diranez, kanpoko aldetik areto bakoitxari lotutako sarbide barri bi gehitu dira. Sarrerako espazio horiek, aretoetara sartu aurretik kokatuta dagozanak, aldagela moduan erabiliko dira. Era berean, horreetako baten bulego txiki, edo lan-leku bat dago, eta besteak duxadun bainugetarako sarbidea emoten dau.

Olalde Aretoa incorpora dos aulas para danza y teatro

Las aulas situadas en el lateral de Olalde Aretoa se han acondicionado para generar dos aulas nuevas para danza y teatro, de 74 m2 cada una. La intervención, con un presupuesto de 216.000 €, ha equipado a estas con todo lo necesario. Las aulas están divididas por un tabique móvil que se recoge, para poder crear así una única sala de 148m2. Además, se han colocado dos escaleras metálicas en la fachada, con dos nuevos accesos a cada sala. Estos espacios de entrada, se utilizarán como vestuarios. A su vez, en una de ellas hay un despacho pequeño y la otra da acceso a unos baños con ducha.



Olaldeko zubia barriro zabaltzeko lanak aurrera doaz. Zubi osoa aldatu behar da, eta proiektua egin ostean eta UR Agentziaren baimena lortu ondoren, lizitatzeko prozesua hasiko da, 250.000 euroko aurrekontuagaz.

» Mungiako kaleak barriztetako lanak

Asfaltatze-lanak egin dira Palado, Neurketa, Usandizaga Eresgille eta Landetxo kaleetan eta Aritz bidean. Aurreikusita dago Elorduigoitia eta Sagardi kaleak asfaltatzea. Eta urtearen bigarren zatian, asfaltatze proiektuak

egingo dira leku honeetan: Aurelio Artetxe aparkalekua, Errekatsu kalea, Lauaxeta Olerkariko biribilgunea, Goggomobil biribilgunea eta Bermeo bidea.

Batzuetan, beharrok egiteko, trafikoa ebagitea beharrezkoa izaten da.

Betiko lez, horren informazioa sasoiz zabaltzen dau Udalak herritarrek informatuta egoteko. Kontuan izan behar da lan honeek gure bizi kalidadea hobetzeko eta zirkulazioa hobetzeko beharrezkoak direla.



Landetxo kalea



Aritz bidea

» Jolasgune barria eraikiko da Torrebillela parkean

Udalak umeentzako jolasgune barria sortuko dau Torrebillela parkean. Honeri esker, kanpoan olgetarako espazio barria eskainiko jake mungiarrei.



Proiektuak udalerraren beharrezanean erantzungo deutse, 2019ko aurrekontu parte-hartzaileetan Udalak hartutako konpromisoa bete eta herritarren proposamenei erantzunda. Bide honetan, guztion artean Mungia hobea eraikitzen jarraitzeko.

Jolasgune barri hau hiru sektorez osatuta egongo da, edadearen arabera bananduta. 6 eta 12 urte bitarteko umeentzako gunean oreka-jolasak, txirristak, jolas igokariak eta aisialdirako gune bat egongo dira. Bigarrena 3 eta 6 urtekoentzako gunea izango da, oreka, txirrista eta jolas sinboliko

desbardinakaz, eta, amaitzeko, hirugarren eremuak 30 metro luzeko tirolina eukiko dau. Dana Torrebillela parkeko ingurune naturalean kokatuta. Aisialdiko eskaintza handitu eta hobetuko da, naturaz inguratutako jolasgune barria sortuz, joko inklusiboak, azpiegiturak eta kanpotik irisgarritasuna hobetuz eta erronka fisiko barriak sortuz, inguruneagaz bat datozenak.

Proiektu hau lizitazio fasean dago, 127.741,76 euroko aurrekontuagaz, eta apirilean esleitu da lana.

Mungiak, udalerriko hainbat tokitan dagozan jolasguneak hobetzeko politikagaz jarraitzen dau, pasa dan zemendian Aita Arrupe kalekoetan egin eban bezala.



El Ayuntamiento de Mungia construirá una nueva zona de juegos infantiles, con tres espacios diferenciados por edades y acorde con el entorno en el parque Torrebillela.

El proyecto cumplirá con uno de los compromisos adquiridos con la ciudadanía en los presupuestos participativos de 2019.

La licitación está ya abierta, por un valor de 127.741,76 euros, IVA incluido, y en abril se hará la adjudicación de las obras.

» Auzotaxi zerbitzua, martxan

El nuevo servicio de Auzotaxi está en marcha

En febrero echó a andar el servicio 'Auzotaxi', que tiene ya 15 personas usuarias. Con este servicio, a través de bonos descuento, el Ayuntamiento abonará la mayor parte del precio de los viajes en taxi entre los barrios y el centro urbano, acercando así el acceso a los distintos servicios. Cada viaje costará 12€, de los que el Ayuntamiento abonará hasta 10€, según el número de viajes anuales que se realicen.



Zezeilean martxan jarri zan auzotaxi zerbitzua, Mungiako erdigunetik asago bizi diran erroldatutako herritarrek lotura hobea izateko erdiguneagaz eta, ganera, prezio merkean. 15 erabiltzaile badagoz, eta errazago helduko dira, kasurako, anbulatoriora, ikastetxeetara, posta-bulegora, udaletxera, banketxeetara, denda eta garraio publikoetara.

Apuntatuta dagozan 15 mungiarrak, auzoka honeek dira: Birla (6 erabiltzaile), Berreagamendi (4 erabiltzaile), Larrauri (erabiltzaile 2), Elgezabal (erabiltzaile 1), Markaida (erabiltzaile 1) eta Iturribaltzaga (erabiltzaile 1).

Diruz lagunduko diran bidaiak udalerririko barrukoak dira eta Udalagaz Auzotaxi hitzarmena sinatu eta lizentzia Mungian erregistratuta daukien taxiak erabili ahal izango dira.

Udalak hiru bonu mota eskainiko dauz erabiltzaileentzat urteko, bidaia kopuruaren arabera (150 gehienez), eta bidaia bakotzak 12 euroko prezioa izango dau. 0 eta 50 bitarteko bidaia kopururako, 10 bidaia bonuek 20 euroko kostua izango dabe (10 euroko dirulaguntza bidaia bakotzeko), 51 eta 100 bitartekoak 60 euro balioko dabe (6 euroko dirulaguntza bidaia bakotzeko)


eta 101etik 150era bitartekoak 80 euro balioko dabe (4 euroko dirulaguntza bidaia bakotzeko).

Zerbitzu honen erabiltzaileek Auzotaxi txartel pertsonala eta besterenezina eskuratuko dabe, eta astelehenetik barikura (7:30etik 20:00etara) eta zapatuetan (9:00etatik 14:00etara) erabili ahal izango dabe; domeka, jaiegun eta abuztuan ez da zerbitzurik eskainiko. Aurreko eguneko 20:00ak baino lehen erreserbatu beharko da Auzotaxia.

» Gure auzoak jagoten

Mungiako auzoak jagoteko lanakaz jarraitzen dau Udalak, eta akabuko hileotan egin diran hobetze-beharren artean, aitzatekoak dira San Martin bidean egindako konponketak eta Markaidako bidean egindakoak.

2022. urtearen bigarren zatian, ganera, konponketa gehiago aurreikusten dira gure herriko auzoetan: Atxuri bidean, San Martin bidean (II.fasea), Elorriaga bidean, Arritugane bidean eta Derio bidean.



San Martin bidea


» Mungiak argiteria publikoaren eraginkortasuna hobetuko dau LED teknologiagaz

Datozan hilabeteetan, udalerriko hainbat lekutan hobetuko da kanpoko argi publikoaren eraginkortasuna; 300 argi-puntu baino gehiago LED teknologiarara pasatuko dira; izan bere, gaur egungoak baino hobeak dira eta, ganera, 1890/2008 Errege Dekretua betez eraginkortasun energetikoari laguntzen jako.

Aldaketa horrek 183.300,72 euroko aurrekontua eukiko dau. Lizitazio-fasean dagozan argi barriak hornitu eta instalatzeak urtean 250.000 Kwh aurreztutea ekarriko deusku, eta horrek energia-eraginkortasuna eta energia-aurrezpena hobetuz aparte, berotegi-efektuko gasak gitxitzen lagunduko dau; eta, ganera, energia-fakturak eta lanparak birjartzeak eta mantentzeak dakarren ohiko gastu garrantzitsua gitxitu egingo da.

Ipiniko diran LED teknologiako luminariak bizitza erabilgarri luzeagoa eukiko dabe eta energetikoki eraginkorrak dira.

Argi barriok kale honeetan jarriko dira: Lauaxeta Olerkari, Uriguen parkea, geltokiko aparkalekua, Intxausti Eresgile, Luisene industrialdea, Haurtzaindegiko gunea, Aritz bidea, Sabino Arana, Aita Elorriaga, Andra Mari eraikina.



Lehen

Mungia mejorará en los próximos meses la eficiencia del alumbrado público exterior del municipio, sustituyendo más de 300 puntos de luz por tecnologías LED, más eficientes y cumpliendo con el RD 1890/2008 en lo que se refiere a eficiencia energética.

El suministro e instalación de las nuevas luminarias está en fase de licitación por un presupuesto de 183.300,72 euros, permitirá un ahorro de 250.000 Kwh al año. No sólo mejorará la eficiencia y el ahorro energético, con la consiguiente disminución de gases de



Orain

efecto invernadero, sino que también permitirá aminorar el importante gasto de la factura energética, la reposición de lámparas y mantenimiento.

Las luminarias de tecnología LED que se instalarán, poseen una vida útil más larga y son energéticamente más eficientes.

Las sustituciones de luminarias se llevarán a cabo en las calles Lauaxeta Olerkari, Parque Uriguen, aparcamiento estación, Intxausti Eresgile, polígono Luisene, zona Haurtzaindegia, Aritz bidea, Sabino Arana, Aita Elorriaga, edificio Andra Mari.

» 'Hiri eta Komunitate jasangarriak', protagonistak, Eskola Agendako Udal Foroan

Maiatzaren 20an, Mungiako 2030 Eskola Agendako Udal Foroa eta Eskolen arteko Foroa antolatuko da herriko ikastetxeetako ikasleakaz. Bertan, IES Mungia, Larramendi ikastola eta Bentades ikastetxeko LH eta DBHko ikasle ordezkariak eta udal ordezkariak hartuko dabe parte.

Herriko ikastetxeetan ikasturtean zehar landutako eta burututako ekintza eta esperientziak partekatzeko erea eukiko dabe.

Ikasturte honetan landutako gaia barria da, "Hiri eta Komunitate jasangarriak", GIH 11. Helburu horren bidez, hiri edo komunitate batek jasangarria izateko zelakoa izan

behar dauan aztertuko dabe ikasleek, horretarako Mungia eredutzat hartuta.

2030 Eskola Agendan landuko dan gai horrek Mungiako Udala oraintxe bertan prestatzen dabilen udalerriko Iraunkortasunaren Diagnostikoagaz lotura dauka. Ganera, orain dala gitxi martxan ipini dan HAPOaren herritarren partaidetza prozesua dala eta, "Etorkizuneko Mungia Alkarregaz!" jasoteko erea egongo da.

Hori guztia dala eta, Mungiako Udalak eta ikastetxeek, alkarlanean, 2030 Eskola Agendaren barruan aitaturtako gaia lantzeko helburuagaz eta, bide batez, Mungiako HAPOaren partaidetza prozesuan



ekarpenak egiteko tailer eta kaleko ekintza batzuk burutuko ditue.

Udal Foroaren helburua honakoak dira: garapen iraunkorerrantzako bidean goazela, ikasleek Udalari herria hobetzeko egin ahal diran proposamenak egitea, ikastetxeek hartuko dabezan konpromisoak finkatzea eta ikasleei herriko kideak dirala sentiarazotea.

» Mungiako Udalak Legarda futbol zelaiko harmailak egokituko ditu irisgarritasuna hobetuteko



Mungiako Udalak Legarda futbol zelaiko harmailak goitik behera egokituko ditu. Lanak maiatzean hasiko dira, eta gaur egungo harmailak behera botako dira, harmailek ez dabe-eta indarrean dagoen araudia beteten; horren bidez, irisgarritasuna nabarmen hobetuko daben beste batzuk eraikiko dira. Egitura barri hori adreiluz, hormigoiz eta 'sandwich' panelez osotuta egongo da, bai alboetan, bai estalkian. Guztira, harmaila barriak banakako 240 eserleku izango ditu, gurpil-aulkietarako egokitutako tokien ganera.

Harmaila barriak egiteko, 121.714,85 euroko lizitazioa egin dau Udalak, BEZ barne. Esleipenduna Ekora Rehabilitación enpresa da

eta, beraz, enpresa horrek izango dau 3 bat hilabeteko iraupena izango daben lanak egiteko ardura.

Herrian kirola sustatzeko Udalak daukan konpromisoaren beste adibide bat da lan hau. Legardako harmailak egokitzeak aldaketa nagusia ekarriko dau instalazioetan eta horrek, ondorioz, hobekuntza nabarmena mugikortasun urriko pertsonentzat.

Beharrezkoa da kirola eta ohitura osasungarriak suspertzea, eta, horretarako, honen moduko esku-hartze garrantzitsuak egiten jarraituko da.

El Ayuntamiento rehabilitará las gradas del campo de fútbol de Legarda

El Ayuntamiento de Mungia rehabilitará de manera integral las gradas del campo de fútbol de Legarda. Las obras, que comenzarán en mayo, consistirán en el derribo de la actual grada, ya que esta no cumple con la actual normativa, y la construcción de una nueva que suponga

una importante mejora de accesibilidad. La nueva estructura estará compuesta por ladrillos, hormigón y paneles 'sándwich', tanto en los costados como en la cubierta. En total, la nueva grada tendrá 240 asientos individuales, además de espacios adaptados para sillas de ruedas.

Para ello, ha realizado una licitación por valor de 121.714,85 euros, IVA incluido, adjudicada a la empresa Ekora Rehabilitación, la cual se encargará de materializar una intervención con una duración estimada de 3 meses.

» Saioa Arkonada, Rubén Rina eta Trail Team Bizkaia irabazle I. Lau Haizeta trail-lasterketan

Por primera vez, Mungia y los montes de alrededor acogieron el 12 de marzo la 1ª edición del trail "Lau Haizeta"; deporte, montaña, buen ambiente y barrizales como principales protagonistas. Participaron 350 mujeres y hombres.

En féminas, Saioa Arkonada ganó la carrera de 24 kilómetros y Oihane Sarasketa la de 11. En categoría masculina Rubén Rina ganó la prueba larga y Aingeru Sainz la corta. Por equipos, Mungia Atletismo Taldea, ganó la de 11 km y I Trail Team Bizkaia en la de 24 km.

En cuanto a la participación de las de casa, Iratxe Riera y Nuria Etxegarai fueron las campeonas de larga y corta distancia y en cuanto a los chicos mungiarra Aitor Mentxaka y Mikel Francia fueron los mejores.



Argakiak: AD Mungia Atletismo Taldea

Lehenengoz, Mungiak eta bere inguruko mendiek Lau Haizeta trail-lasterketako lehenengo edizinoa hartu dabe: kirola, mendia eta giro ona basatza ederretan; horreexek izan ziran martiaren 12ko protagonista nagusiak. Guztira, 350 andrak eta gizonek hartu eben parte, eta eurretatik asko modalidade desbardineta txapeldunak izan ziran. Hasteko, Saioa Arkonada (24 kilometroko lasterketako andrazkoen irabazlea) eta Oihane Sarasketa (11 kilometrotakoan).



Gizonezkoetan, barriz, Rubén Rinak irabazi eban froga luzea eta Aingeru Sainzek laburrean. Taldeen kasuan, etxeko taldea, Mungia Atletismo Taldea izan zan onena 11 kilometrotan eta, 24koan, ostera, Trail Team Bizkaia. Etxeko korrikalarien kasuan Iratxe Riera eta Nuria Etxegarai izan ziran froga luze eta laburreko txapeldunak, eta gizonen artean Aitor Mentxaka eta Mikel Francia.

Amaitzeko, sariak Ager Izagirre Alkateak, Nagore Torre Alkateorde eta Kirol Zinegotziak eta Rakel Mateo triatleta paralinpikoak emon zituen.

» 150 lagun inguruk parte hartu eben Mungiako Duatloian



Argazkiak: Mungiako Tritoiak Triatloi Kluba

El pasado 26 de febrero, unas 150 personas participaron en el duatlón de Mungia. El Polideportivo de Mungia fue la sede de la prueba, donde las personas participantes dejaron allí sus bicicletas para cambiar de modalidad durante el evento.

Como es habitual, el equipo de triatlón de Mungia tuvo una muy buena actuación. Destacar que entre las personas participantes había miembros de diferentes clubes de diversos puntos del País Vasco, en la entrega de premios participó la Teniente de Alcalde y Concejala de Acción Social, Igualdad y Juventud, Bakarne Egia.



Zezeilaren 26an, Mungiako kaleetan zehar 150 lagun inguru batu ziran herriko duatloiko edizino barrian parte hartzen; giroa ezin hobea. Betiko lez, Mungiako Kiroldesia izan zan txapelketa honen eremu nagusia, izan bere, bertan egon zan urtekerea eta bukaera eta, ganera, partaideek bertan itxi zituen euren bizikletak frogan zehar modalidade aldaketa egiteko prest eukiteko.

Ohikoa dan moduan, Mungiako triatloi taldeko kideen partaidetza nabarmena izan zan, sano errendimendu ona erakutsi eben ganera. Beste alde batetik, euskal geografiako txoko desbardineta talde ugari kideak bere egon ziran. Sari banaketan Bakarne Egia Alkateorde eta Gizarte Ekintza, Bardintasuna eta Gazteria Arloko zinegotziak hartu eban parte.

Danon artean oso lehiakortasun sana sortu zan. Ea datorren urtean bere holango giro ona bizi ahal dogun.

» Mungian aste santuan jarduera fisikoa publiko guztientzat

Mungiako Udaleko Kirol Sailak ekintza desbardinak antolatu dauz publiko guztiei zuzenduta

Kirol campusa (4-13 urte)

Txanda bitan antolatuta, apirilaren 11tik 13ra eta 19tik 22ra.

2008 eta 2018 artean jaiotakoek zuzenduta.

Jarduerak: jolasak, kirolak, dantzak, igerilekua, txangoak, etabar. Edade bakoitxera egokituta egongo dira eta adiskidetasuna, lankidetzeta, gaintitzea eta antzeko jarrerak eta jokabideak sustatuko dauz.

Ordutegia 9:00-14:30

**Izena emoteko, 4 urte beteta euki beharko dira ikastaroa hasi aurretik.*

Gazteak martxan (12-17 urte)

1. I. Frontenis Txapelketa (bikoteka, apirilaren 11,13,18 eta 21ean Udal frontoian. Ordutegia 17:00-19:00.

2. Txangoa Mundakara, apirilaren 12an eskalada eta kayaka. Ordutegia 9:00-14:00

**Informazioa: kiroldegian bai gaztegunean.*

Helduak martxan (16 urtetik gora)

1. II. Padel-Txapelketa (bikoteka). Apirilaren 14, 15, 16 eta 18an kiroldegiko pistetan.

2. Atxurizubi Osasun Parkea, apirilaren 12an eta 21ean Ordutegia 10:00-12:00. Aire zabaleko jarduera fisikoa, begirale espezializatuek zuzendua, parkeko makinak eta material desbardinak erabiliz.



Kiroldegia / Polideportivo
94 674 31 12
www.mungia.eus / mungiamartxan.com

Actividad física para todos los públicos en semana santa

En este periodo, el área de Deportes del Ayuntamiento de Mungia lanza la siguiente programación deportiva en abril:

Campus deportivo (4-13 años): actividades lúdico-deportivas de 9:00-14:30h. Habrá dos turnos, del 11 al 13, y del 19 al 22. Será necesario tener 4 años cumplidos.

Plan- jóvenes (12-17 años): I Torneo de frontenis de 17-19h, los días 11,13, 19 y 21 y excursión a Mundaka el día 12, para hacer escalada y kayak.

Plan- personas adultas (+16años): II Torneo de Padel. Actividad guiada en el parque Atxuruzubi, utilizando diversos materiales y máquinas de ejercicio saludable.

» Uda-pasa artistikorako emon izena!!

Mungiako Udalak, euskerazko uda-pasa artistiko berezi 2 antolatu dauz garagarrian. Uda-pasaren helburua hau da: Musika, Dantza, Arte Eszeniko eta Arte Plastikotarako zaletasuna biztutea umeen artean da. Horretarako, metodo atsegina eta interaktiboa erabiliko da, hau da, umeek olgau, interpretatu, musika egin, abestu eta dantzatu egin beharko dabe.

Uda pasa artistikoak garagarrian zehar egingo dira: garagarriaren 5etik 15era (1.txandea) eta garagarriaren 18tik 29ra (2.txandea)

Jarduera hau 2010etik 2018ra jaiotako umeeri zuzenduta dago.

Izen-emoteko epea apirilaren 25etik maiatzaren 6ra da, www.mungia.eus webgunean eta HAZen

Informazio gehiago: www.mungia.eus



El Ayuntamiento va a organizar en julio dos colonias artísticas en euskera con el fin de despertar la sensibilidad artística de niñas y niños a través de la Música, la Danza, las Artes Escénicas y las Artes Plásticas.

Las colonias están dirigidas para niños y niñas nacidas entre 2010 y 2018.

Las fechas en que se van a celebrar son:

- Del 5 al 15 julio (1er turno).
- Del 18 al 29 de julio (2º turno).

Inscripción: del 25 de abril al 6 de mayo en www.mungia.eus y en el SAC.

Más información: www.mungia.eus.

» San Pedro jaiak atzera ospatuko doguz

Mungia volverá a celebrar sus fiestas de San Pedro

El Ayuntamiento ya ha constituido la Comisión de Fiestas formada por concejales, personal técnico del Ayuntamiento y las asociaciones del municipio.

El txupinazo se celebrará el 28 de junio, "Baserritarren Eguna" el 26 de junio y "Sukalki Eguna" el 3 de julio.

Las personas interesadas en realizar propuestas para las fiestas de San Pedro 2022 podrán hacerlas a través del correo jaiak@mungia.eus.

Mungiak San Pedro jaiak ospatuko ditu barriro, 2019tik hona herriko jai nagusiak antolatu barik egon ostean. San Pedroetan, edade eta mota guztietako jendearentzat egokia dan egitaraua eskaintzeaz ganera, Mungiaren nortasuna, kultura eta gastronomia nabarmentzen doguz. Gogoratu behar da, osasun-egoera kontuan izanda, indarrean dagozan neurriak ezarriko dirala.



Udalak martiaren 7ko asteen Jai Batzorde barria eratu eban herriko jaiak prestatzeko. Jai Batzordea zinegotziek, Udal teknikariek eta herriko alkarte batzuek osotzen dabe; hain zuzen bere honeek dira: Amilotx Dantza Taldea, Azken Zarata Mungia Rock Elkartea, Danontzat Jubilatu eta pentsinodunen alkarte, Gorabide Elkartea, Ingule Gazte Asanblada, JM Arregi Abesbatza, Mari Jata Kultur Elkartea, Mungia Igeriketa Taldea, Mungia Errugbi Taldea, Mungia Merkataria eta Ostalarien Alkartea.

Jai Batzordeak dagoaneko iragarri dauz mungiarrek egutegietan markatuko dabezan datak. Txupinazoa 28an izango da, San Pedro bezperan; Baserritarren Eguna, bagilaren 26an; eta Sukalki Eguna, barriz, garagarriaren 3an. Jaien hasikerea bagilaren 28a izango da, baina txosnak 24an zabalduko dira..

Azkenik, 2022ko San Pedroetarako proposamenak egiteko, idatzi eta bidali zure ekarpenak helbide honetara: jaiak@mungia.eus.

» Mungiako Bildumazaleen XVIII. Feria, apirilaren 23an eta 24an!

Bitxiak Alkartek Bildumazaleen XVIII. Feria antolatuko dau apirilaren 23an eta 24an, kiroldegian, Legardan, eta udaletxeko erakusketa aretoan.

Kiroldegian, erakusketa barriak izango dabez: labana artisauak miniaturan, Muñecas Nancy, Perfumeak animalia eta lore formadun fraskoetan, kutxatxu apaingarriak, gerra zibileko objektuak, Camiones Pegaso, besteak beste. Ez da faltako panpina-etxeen topaketa, bere muntaketakaz harrituko gaituen zaleak bilduko dituana.

Kiroldegian bertan, Diz Diz antzerki taldearen erakusketa eta girotzea egongo da, eta Mineralen bildumazaleen bere sustatuko da opariakaz eta zozketakaz. Merkataritza-guneak, bere aldetik, azken barrikuntzak hartuko dauz.


Gazteentzako atal bereziak Legardan izango dira: tren-maketa, Playmobil eta Lego. Eta leku itxi, estali eta eskusibo batean trukatu ahal izango doguz gure "repeak".

Domeken, apirilaren 24an, auto klasikoaren kontzentrazinoa egingo da Legardan, desfile eta guzti.

Udaletxeko erakusketa aretoan grabazino sistema zaharren erakusketa bikaina ikusiko dogu Agustín Erkorearen eskutik. (Apirilaren 23tik 30era).

Ez ahaztu:

Apirilaren 23a eta 24a. Kiroldegia, Legarda eta udaletxeko erakusketa aretoa.
zapatuan, 10: 00etatik 14: 00etara eta 16: 30etik 20: 30era.
Domekan, 10:00-14:30.



Vuelve la Feria de Coleccionismo a Mungia

Mungia acogerá el 23 y 24 de abril, la XVIII Feria del coleccionismo, de Bitxiak, en Legarda, el polideportivo y la sala de exposiciones del ayuntamiento. Maqueta de tren, Lego, y Playmobil; 'Casas de Muñecas'; concentración de coches clásicos, con desfile; zona comercial y de intercambio de repetidos; y nuevas exposiciones.

» 'Amatasuna' Emakume idazleak euskal literaturan, Liburu Azokaren ardatz



'Amatasuna' Emakume idazleak euskal literaturan ardatz dala, apirilaren 1etik 10era bitartean bueltatuko da Mungiako Liburu eta Disko Azoka Matxin Plazara; hamalau erakustoki antolatuko dira liburu-denda, argitaletxe, banatzaile eta instituzioen partaidetzagaz. Euskadiko Liburu Ganbara, Mungiako Udala, Eusko Jaurlaritzak eta Bizkaiko Foru Aldundiko Euskara, Kultura eta Kirol sailaren laguntza ditu Azokak, eta goizeko (11:00etatik 14:00etara) eta arratsaldeko (17:00etatik 20:00etara) ordutegia izango dau. Aurtengo Mungiako Liburu Azoka Euskadiko Liburu Azoken kanpainako lehen liburu azoka izango da, beragaz hasiko da-eta Euskal Autonomia Erkidegoan burutzen dan hamalau liburu azokaz osotutako kanpaina Ibiltaria.

Bertako idazleak ikusteko eta euren liburuak izenpetuta erosteko eta liburu eta diskoen azken nobedadeak erosteko aukeraz ganera (% 10eko beherapenagaz), jardueraz beteta etorriko da Azoka. Aurtun, emakumeek euskal literaturari egiten deusien ekarpena azpimarratuko

da; izan bere, aurtengo Liburu Azokaren erakusketak "Amatasuna" (Euskal idazle emakumeak) izenburua izango dau, eta Miren Agur Meaberen idazle ospetsuaren presentzia bere izango dogu; hitzaldia bere eskainiko dau.

Meabek Espainako Poesia Saria jaso dau 2021ean, 'Nola gorde errautsa kolkoan' liburuagaz; eta, izan bere, Euskarazko liburu batek sari hori jasotzen dauan lehen aldia da, eta Mungian, amatasunaren inguruan hausnartuko dau hitzaldi batean. Torrebillelan izango da, apirilaren 7an, 19:00etan.

Jarduera berezietatik aparte, beti bezala, azken nobedadeak erosteko aukera egongo da Azokan. Besteak beste, Eider Rodriguezen "Eraikuntzarako materiala", Kirmen Uriberen "Izurdeen aurreko bizitza", Karmele Jaioren "Aitaren etxea", Lander Garroren "Faith" eta Jon Arretxeren "Dortokaren begirada" besteak beste.

Haur eta Gazte literaturan, Toti Martínez de Lezearen "Nurren abenturak", edota Pirritx eta Porrotxen lanak egongo dira, eta baita

argitaletxe desbardinaren haur eta gazteen bildumak bere.

Erdal literaturan, Julia Navarro, Dolores Redondo, Planeta Sariak, edota ohiko idazleen azken lanak egongo dira: Isabel Allende, Arturo Pérez-Reverte, Juan Gómez Jurado, Javier Sierra etab.

Euskal diskogintzan, barriz, Jabi Muguruza, Iker Lauroba, Petti, Maite Larburu, Gatibu, Zea Mays, Goazen, betiko Benito Lertxundi, Urdangarin, Ruper, Kalakan eta abar izango dira.

Asteburuetan bertoko idazleak izango doguz; hau da, Jon Arretxe, Anton Arriola, Miren Palacios eta Miren Amuritza bezalako egileak euren liburuak sinatzen egongo dira.

Liburu Azokan garrantzizkoa izango da Udalaren partaidetza, bere erakusmahaiaren Mungiako liburuak, argazkiak eta musika ikusgai jartzen diralako eta gura dauanek erosteko ere bere eukiko dau.

» Gure etxebizitzetan energia aurrezteko aholkuak

- » Termostatoa behar dan moduan erregulatzea. Hozkailurako tenperaturarik onena 6°C da, eta -18°C izozkailurako.
- » Perlizagailuak instalatzea, eta horreek ura aireztatzeko erea emoten deuskue, uraren kontsumoa murriztu, eta, beraz, ur beroaren eta energiaren kontsumoa murriztu egiten da.
- » Kontsumo txikiko dutxa-ihintztagailua instalatzea. % 40 inguru aurrezteko erea emoten dau, eta antzeko bustitze-sentsazioa emoten dau.
- » Tenporizadoreak instalatzea, berokuntza-ekipoen funtzionamendu-uneak saihestu eta kudeatuta.
- » Termostatoen temperatura zure beharretara egokitzea
- » LED bonbillak instalatzea.
- » Urtero garbitu erradiadoreak. Erradiadore barruan airea egoteak eraginkortasuna murrizten dau.
- » Erabiltzen ez diranean edo gabaz (telebista, ordenagailuak, wifia, etab.) kontsumo mamuak amatu.
- » Bainu-denborak kontrolatzeko harea-erlojua.
- » Aztertu faktura elektrikoak, erabiltzen ez dozuzan funtzioak kontratatuta badozuz ikusi, eta baloratu eta aztertu kontratatutako potentzia.

Neurri horreek Mungiako Udalak antolatutako hitzaldi batean komentatu, azaldu eta aztertu ziran. Hitzaldi hori Asier Epelde Sarasola Enerki enpresako zuzendariak emon eban, martiaren 10ean, Udaletxeko Erakusketa Aretoan.



Consejos para el ahorro energético en nuestras viviendas

- » Regula el termostato de manera adecuada. La temperatura óptima para el refrigerador es de 6°C y -18°C para el congelador.
- » Instala perlizadores, estos permiten airear el agua reduciendo su consumo y por lo tanto, el de agua caliente y energía.
- » Instala el rociador de ducha de bajo consumo. Ahorrarás en torno a un 40% y proporciona una sensación de mojado similar.
- » Instala temporizadores, evitando y gestionando los momentos de funcionamiento de equipos de calefacción.
- » Ajusta la temperatura de los termostatos a tus necesidades
- » Utiliza bombillas LED
- » Purga cada año los radiadores. La existencia de aire dentro del mismo reduce su eficiencia.
- » Apaga los consumos fantasma cuando no se utilicen o durante la noche (televisión, ordenadores, wifi, etc.)
- » Reloj de arena para control de tiempos de baño.
- » Revisa las facturas eléctricas por si tuvieras funciones contratadas que no utilizas y valora y analiza tu potencia contratada.

Dichas medidas fueron comentadas, explicadas y analizadas en la charla organizada por el Ayuntamiento de Mungia sobre “Cómo ahorrar energía en el hogar y producir nuestra propia energía”, impartida por Asier Epelde Sarasola, director de la empresa Enerki, que tuvo lugar el pasado 10 de marzo, jueves, en la sala de exposiciones del Ayuntamiento.

Pil Pilean

» 2023ko egutegian Mungiarrek izango dira nagusi

Mungiako Udalak "MungiHarro egutegia 2023" osatuteko argazki lehiaketean martxan ipini dau. Oraingo honetan gai benetan politagaz, "Mungiarrek" izango gara protagonistak eta!

Argazkietan, Mungiarrek agertuko dira gure herriko tokietan edo egoera desbardinetan, adibidez, Mungiako eraikin, monumentu edo geure ondareak erakusten, erosketak egiten edo dendariak saltzen, familia edo kuadrilleagaz bazkaltzen edo zeozer hartzen, gure herri edota auzoetako jaietan, inauterietan edo Basatosten moztarrotuta, kirola egiten, paseoa emoten, gure naturaguneetatik, Olentzero eta Mari Domingigaz, olgetan, gure kaleetan...

Lehiaketan, 18 urtetik gorako edonork parte hartu ahal izango dau. Argazkiak formatu digitalean aurkeztu beharko dira, kolorean edo zuri-baltzean, eta jarrera horizontalean. Argazkien gitxieneko erresoluzioa 300 p.p.p-koa izango da. Neurria hau: 330 cm x 240 cm.

Argazkiak aurkeztuteko epea 2022eko urriaren 21era arte izango da.

Danetan botorik gehien jasoten dauen argazkiak sari bat hartuko dau eta egutegiaren azalean agertuko da. Saria: 300 euroko bonoa, Mungiako saltokietan erabilteko.

Hartu zure argazki makinea eta parte hartu 2023 urteko Mungiarren egutegia janzten.

i
mungiarren.egutegia@gmail.com
www.mungia.eus
 [mungiarren.egutegia](https://www.facebook.com/mungiarren.egutegia)

Mungiharro egutegia 2023



El Ayuntamiento de Mungia ha lanzado un concurso de fotografía para ilustrar el "Calendario MungiHarro 2023". Esta vez es un tema muy bonito, ya que los y las "Mungiaras" seremos las protagonistas.

En las fotos aparecerán personas de Mungia en lugares o situaciones de nuestro pueblo, como en edificios, monumentos o lugares emblemáticos, comprando o vendiendo, o comiendo con la cuadrilla o familia, con disfraces de carnaval, o en Basatoste, en fiestas, paseando por nuestros espacios naturales, con Olentzero y Mari Domingi, por nuestras calles...

El concurso está abierto a cualquier persona mayor de 18 años. Las fotografías deberán presentarse en formato digital, en color o en blanco y negro, y en formato horizontal. La resolución mínima de la foto será de 300 p.p.p. Tamaño: 330 cm x 240 cm.

Las fotos deben enviarse antes del 21 de octubre de 2022.

La foto más votada, recibirá un premio de 300 euros para utilizar en establecimientos de Mungia y será la imagen de portada del calendario.

Coge tu cámara y participa en el calendario Mungiharro de 2023.



MUNGIA
UDALA

www.mungia.eus



ARGITARATZAILEA:
MUNGIako UDALA: Trobika, 1 / 48100 Mungia <Bizkaia>
Tel. 94 674 12 16
komunikazioa@mungia.eus / www.mungia.eus

ALE KOPURUA: 7.000 • LEGE GORDAILUA: BI-2224/2012

